DONEJAKUE BIDEA EUSKADIN
EL CAMINO DE SANTIAGO EN EUSKADI

GOMENDIOAK
RECOMENDACIONES

Planifikatu hurrengo eguneko etapa: Erromesen aterpe asko udan bakarrik irekitzen dituzte

Komeni da Bidea bakarrik ez egitea.

Ez ahaztu dokumentazioa, kredentziala eta dirua –edo kreditu-txartela–, eta kontu handia izan baliozko objektuekin.

Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larrialdietako botika-kutxa.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea.

Zure segurtasunerako, jarraitu senaile ofizialei. Trazadura diferente bat adierazten duten gezi horirik aurkituz gero, ez jarraitu halakoei.

Errespetatu ingurunea eta gainerako erromesak.

Planifica la etapa del día siguiente: Muchos albergues de peregrinos sólo abren en verano.

Es aconsejable realizar el Camino en compañía.

No olvides documentación, credencial y dinero –o tarjeta de crédito- y ten cuidado con los objetos de valor.

Lleva comida y bebida suficiente para cada etapa y botiquín de urgencia.

Lleva calzado y ropa adecuado teniendo en cuenta la predicción del tiempo.

Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.

Por tu seguridad, sigue la señalización oficial. Si encuentras flechas amarillas que indican un trazado diferente, no las sigas.

Respeta el entorno y a los demás peregrinos.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Kantauri itsasoa berriro agertzen hasten da zeruertzetik. Euskadiren bihotz berdean barrena ibilbidea egin ondoren eta Euskadiren industria-arimari azken begirada eman ondoren, Donejakue bideak Bizkaia atzean utziko du eta berriro egingo du bat itsasoko kresalarekin. Euskadiko azken etapa honetan, ibilbidea Bizkaiko meatze-eremutik igarotzen da, ia ezustekorik gabe, Portugaleten hasi, Ortuellan eta Abanto-Zierbenan barrena igaro eta La Arenako hondartzaraino iristen den bidegorri eroso batean zehar. Ibilbidea laua da nagusiki, malda txikiak ditu, ez da inguruko elebazioetatik igarotzen, esate baterako Serantes edo Montaño mendietatik, eta panoramikak eta komunikabide handiak (A-8 autobidea eta beraren Hegoko Saihesbidea, adibidez) txandakatzen dira. Behin Pobeña atzean utzita, Donejakue bidea ikuspegi hoberenak dituen tarteetako batean sartzen da: salgaia La Arenako kargalekuraino garraiatzen zuen antzinako meatze-trenbidearen ibilbidean, gaur egun Bide Berde gisa berreskuratu dena.

El mar Cantábrico vuelve a asomar por el horizonte. Tras el recorrido por el corazón verde de Euskadi y el reciente vistazo a su alma industrial, el Camino abandona Bizkaia para reencontrarse con el salitre marino. El recorrido en esta última etapa vasca discurre por la zona minera de Bizkaia, sin apenas sobresaltos, por un cómodo carril bici que parte de Portugalete, discurre por Ortuella y Abanto-Zierbena y llega hasta la playa de La Arena. El trazado es eminentemente llano, con suaves pendientes, evitando las elevaciones de los alrededores como el monte Serantes o el Montaño, y alternando panorámicas con grandes vías de comunicación como la autopista A-8 y su Variante Sur. Una vez se deja atrás Pobeña, el Camino del Norte regala uno de sus tramos con mejores vistas: el recorrido ahora recuperado como Vía Verde del antiguo ferrocarril minero que transportaba la mercancía hasta el cargadero de La Arena.

16,8 km 209 m 3h 40’



Bidezatia / *Tramo*
PORTUGALETE > GALLARTA

km 0 ····· **PORTUGALETE**. Herritik ateratzeko, V. Chávarri eta G. Uzkiano kaleetan gora egin behar dugu Karlos VII.aren etorbiderantz, eta bidegorria hartu behar dugu eskuinaldera, Ortuellarantz, A-8 autobiaren gaineko pasabide luze batean barrena.

km 2 ····· **URIOSTE (ORTUELLA)**. Behin A-8 autobia gainetik gurutzatu ondoren, eta Nestor Basterretxearen eskulturaren ondoan, bi aukera ditugu: Ortuellako hirigunera hurbiltzea edo aurrera jarraitzea bidegorria utzi gabe autobiaren paralelo dagoen ibilbide ofizialean barrena. Mahaiz eta iturri batez hornitutako atsedenleku txiki batetik igaroko gara, eta Ortuellako Nocedal auzora iritsi baino lehen, bidegorriaren adar batek aurrera jarraituko du, baina guk eskuinaldera joko dugu eta errepidegune baten gainean dagoen zubi bat eta beste errepide baten azpian dagoen tunel bat igaroko ditugu.

---

km 0 ····· ***PORTUGALETE**. Para salir de la villa subimos por las calles V. Chávarri y G. Uzquiano hacia la avenida de Carlos VII y tomamos el carril bici a la derecha, en dirección Ortuella, por una larga pasarela sobre la autovía A-8.*

km 2 ····· ***URIOSTE (ORTUELLA).** Una vez que ya hemos cruzado sobre la autovía A-8, y junto a la escultura de Néstor Basterretxea, tenemos opción de acercarnos al casco urbano de Ortuella o seguir sin desviarnos del carril bici por el trazado oficial que continúa paralelo a la autovía. Pasamos una pequeña área recreativa con mesas y una fuente, y antes de llegar al barrio de Nocedal también perteneciente a Ortuella, un ramal del bidegorri sigue de frente mientras que nosotros giramos a la derecha, pasando un puente sobre un nudo de carreteras y un túnel bajo otra.*

KMZ

GPX

eu es

DONEJAKUE BIDEA
CAMINO DE SANTIAGO

Kostaldeko Bidea 8 El Camino de la Costa

PORTUGALETE COBARÓN

Km.		
16,8	209m.	3h. 40’

United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization

Routes of Santiago de Compostela: *Camino Francés* and Routes of Northern Spain inscribed on the World Heritage List in 1993

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EZ GERATU EZAGUTU GABE!
¡NO TE LO PIERDAS!

La Arenako hondartzaren parean zeharkatzen dugun Barbadunaren itsasadarra Natura 2000 Sarearen barruan Kontserbazio Bereziko Eremutzat hartzen den naturagune babestua da. Eremu horretako padurak eta dunak balio ekologiko handia duten interes handiko habitatak dira. Gaua Pobeñako erromes-aterpetxean igarotzen baduzu, merezi du aparkalekutik hasita paduretaraino iristen den eta egokituta dagoen pasealekuan barrena paseatzea.

La ría del Barbadun que cruzamos a la altura de la playa de La Arena, es un espacio natural protegido considerado Zona de Especial Conservación dentro de la Red Natura 2000. Sus marismas y dunas son hábitats de gran interés que atesoran un gran valor ecológico. Si se pernocta en el albergue de peregrinos de Pobeña, merece la pena darse una vuelta por el paseo acondicionado que parte del parking y se acerca a las marismas.



Ortuellan, udalerriaren mehatze-iraganak sortutako paisaiaz gozatzeko aukera izateaz gain, erromesak inguru horretako "Cruceiro" bakarra eta ehun urtetik gorako bi ermita ikus ditzake, San Bernabe, Urioste auzoan, eta La Magdalena, Nocedal auzoan.

En Ortuella, además de poder disfrutar del paisaje creado por el pasado minero de la localidad, el peregrino podrá encontrar el único Cruceiro de toda la zona y dos ermitas centenarias, la de San Bernabé, en el barrio de Urioste, y la de La Magdalena, en el barrio de Nocedal.

Bidezatia / *Tramo*
GALLARTA > COBARÓN

km 5,6 ·· **GALLARTA**. Gallartara iristean bidegorritik eskuinaldera joko dugu behin-behinekoz, baina berriro sartuko gara bidegorrian errepide azpiko tunel bat zeharkatzeko eta, aurrerago, autobia azpian dagoen beste tunel bat zeharkatzeko. Bide-zati horretan Serantes eta Montaño mendien artean ibiliko gara. Serantes mendia autobiaren beste aldean dago eta Bilboko portutik banantzen gaitu. Gu bigarren menditik, hots, Montañotik hurbil igaroko gara; gure ezkerrean geratuko da. Bidegorriaren bihurgune batean kokatuta dagoen jolasgune txiki bat utziko dugu atzean, eta baratze txikiz jositako Cardeo haran ederra zeharkatuko dugu.

Alde batera utziko dugu bidegorriaren ezkerraldeko saihesbidea eta aurrera jarraituko dugu La Arenako hondartzaraino iritsi arte.

km 12,8 ·· **LA ARENAKO HONDARTZA**. Zierbenako lehenengo etxeetara iristen garenean, hondartzaren eskuinaldean, gure ezkerraldean dagoen espaloia hartuko dugu, errepidea zeharkatuko dugu zebra-bidetik eta aurrera jarraituko dugu egurrezko pasabidera iritsi arte. Hondartzan barrena jarraituko dugu Barbadunaren itsasadarraren gaineko zubi metalikotik Pobeñara iristeko.

Sokorroko Andre Mariaren ermitaren ondoan dagoen seinale batek adierazten du erromes-aterpetxea 200 m eskasera dagoela. Nolanahi ere, Donejakue bideak aurrera jarraitzen du eskuinaldera, etxe baten ondoan barrena, eta eskailera batzuk igota jarraitzen du La Arenako kargalekuari zerbitzua ematen zion meatze-trenaren antzinako ibilbideraino. Gaur egun, ibilbide hori bide berde bihurtu da (bertan eremu horri buruzko azalpen-panelak daude) eta Cobaroneraino iristen da; han Kantauri itsasoaren ikuspegi bikainak ikusten dira.

km 16,8 ·· **COBARÓN**. Pasealeku horren amaieran, jolasgune baten aparkalekura iritsiko gara, eta jolasgune hori igarotzen dugunean, eskuinaldera joko dugu asfaltozko bide batean barrena eta bide horretatik Euskadiko Donejakue bidearen amaierara iritsiko gara, Kantauriko lurretan sartuko baikara kostaldeko Ontón herrian barrena.

km 5,6 ·· ***GALLARTA**. A la altura de Gallarta nos desviamos del carril bici momentáneamente a la derecha y lo retomamos de nuevo para atravesar un túnel bajo la carretera y al poco otro bajo la autovía. Discurrimos en este tramo entre los montes Serantes y Montaño. El primero de estos montes queda al otro lado de la autovía y nos separa del puerto de Bilbao. Nosotros pasaremos cerca del segundo, que quedará a nuestra izquierda. Dejamos atrás una pequeña área recreativa, ubicada en una curva del bidegorri, y atravesamos el bonito valle de Cardeo, salpicado de pequeñas huertas.*

Obviaremos un desvío del carril bici a la izquierda para seguir de frente y alcanzar la playa de La Arena.

km 12,8 ·· ***PLAYA DE LA ARENA**. Cuando lleguemos a las primeras casas de Zierbena, en la parte derecha de la playa, tomamos la acera a nuestra izquierda, cruzamos la carretera por el paso de cebra y seguimos hasta llegar a la pasarela de madera. Seguimos por la playa hasta el puente metálico que, sobre la ría del Barbadun, nos permitirá cruzar a Pobeña.*

Una señal junto a la ermita de Ntra. Sra. del Socorro indica el albergue de peregrino, a escasos 200 m. Sin embargo, el Camino continúa a la derecha, junto a una casa, y sube por unas escaleras hasta el antiguo trazado del ferrocarril minero que daba servicio al cargadero de La Arena. Hoy en día este trazado se ha convertido en una vía verde, con distintos paneles explicativos sobre la zona, y llega hasta Cobarón con unas vistas inmejorables sobre el Cantábrico.

km 16,8 ·· ***COBARÓN**. Al final de este paseo, llegamos al aparcamiento de un área recreativa, pasada la cuál, nos desviaremos hacia la derecha por un camino asfaltado que nos lleva al final del Camino de Santiago en el País Vasco, abriéndonos paso a tierras cántabras a través de la localidad costera de Ontón.*

www.euskaditurismo.eus

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
A TENER EN CUENTA

- Etapa egiten duzun bitartean, bidegorrian kontuz ibili, eta ez zaitez sartu bizikletentzat den bidean. Litekeena da bihurgune ibxi batzuetan txirrindulariek zu aldez aurretik ikusteko aukerarik ez izatea.

- *A lo largo de la etapa, en el bidegorri, presta atención y no ocupes el carril destinado a bicicletas. En algunas curvas cerradas los ciclistas quizás no puedan verte con antelación.*

- Castro Urdialesera iritsi aurretik, Ortuella eta Gallarta dira azken aukera erromesarentzat hainbat zerbitzu eskura izateko, hala nola: Larrialdi-zerbitzua egun osoan duen Osasun Zentroa.

- *Ortuella y Gallarta son la última oportunidad para el peregrino, antes de Castro Urdiales, de tener acceso a servicios como el Centro Médico con servicio de Urgencias durante todo el día.*

- Euri-garaian, gerta liteke Pikilloaren Bide Berdean luiziak izatea; horregatik, arreta handiz ibiltzea komeni da.

- *En la época de lluvias, pueden darse pequeños desprendimientos en la Vía Verde del Piquillo, por lo que conviene extremar la precaución.*

TELEFONO INTERESGARRIAK
TELÉFONOS DE INTERÉS

Portugaleteko Turismo Bulegoa *Oficina de Turismo de Portugalete*	94 472 93 14
La Arena hondartzako informaziogunea *Punto de información turística Playa de La Arena*	94 680 29 76
Donejakue bideen lagunen elkartea *Asociación de Amigos del Camino de Santiago*	94 679 20 99 687 529 606
Bizkaiko Aterpetxezain Boluntarioen Elkartea *Agrupación de Hospitaleros Voluntarios de Bizkaia*	609 031 526
Larrialdiak *Emergencias*	((112)) SOS DEIAK